


**MANDATARIA. <sup>1</sup>**

(BIDE BERRITAN.)



Esku otar bat arturik doa denda danetan  
 Galde egiñaz, zer gauza bear diran ekarri,  
 Bada aztutzen bazaiyo ezer dendariari  
 Ez da aztuko begiratzia apalchuetan;  
 —Piper belch edo azukrerikan potochuetan  
 Begira beza dagon, ez gero deus esan neri—  
 Au diyo bada esaten dendan daguenari  
 Gero ez dezan ezparik izan argan ezertan.  
 Mandatu danak artu ta gero astoarekiñ  
 Ekiten diyo eguneroko bere lanari,  
 Gonak gerrira jatorik, eta zigor batekiñ  
 Berotzen dizka bi anka zañak abereari;  
 Ta joan nai ezik jartzen bazaiyo seta charrakiñ  
 Atze aldetik bultzaka diyo esaten,—¡arri..!

JUAN IGNAZIO URANGA.



(1) Soneto premiado con *accèsit* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1890.